

Donostia, 2017ko urriaren 20a

## IDAZKARITZA NAGUSIARI

### KONTROL MOZIOA, PARTAIDETZA BIDEZKO AURREKONTUEI BURUZKOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu, eta KONTROL MOZIO hau aurkezten du, OGASUN batzordeak hil honetan izan duen bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

### JUSTIFIKAZIOA

Gobernuaren ekina gidatzen duen printzipioetako bat izan behar du herritarren parte hartzeak, legeek agindutakoaren arabera eta egun gizartean den eskakizun handiari kasu eginez.

Herritarrek erakunde publikoetan parte hartzearen aldeko apustu berritzaile bat dira partaidetza bidezko aurrekontuak. Halakoen oinarritzko printzipioa partaidetza bidezko demokrazia da, udal baliabide publikoak erkidegoan planifikatzeko, eta helburu nagusia, berriz, herritarren gune bat sortzea udalbatzen inbertsio politikei buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko.

Gure ustez, udalaren funtzionamendu demokratikoa hobetzeko aukera dira udal aurrekontuetako prestalanak, herritarrei garrantzia eta protagonismo handiagoa eman eta udala aurrekontuen gaiari buruzko urruntasuna eta arroztasuna murrizteko, inportantea izan arren, askotan, urrun-urruna baita.

Nahiz eta 2007an onartutako Herritarren Partaidetzari buruzko Arau Organikoak halako aurrekontuak sartzea jasotzen duen, oso bakanetan egin da saiorik partaidetza bidezko aurrekontuak egiteko, legealdi honetara arte. EAJ eta PSE taldeen gobernu programak jasotzen du aurrekontuak partaidetza bidez egiteko prozesuari eutsiko diotela, *“auzotarrekin auzoetako gastuak lehentasunen arabera gauzatzeko”*. Alabaina, ahaztu egin zaie herritarren parte hartzea legealdi honetako aurrekontuak prestatu, eztabaidatu eta onartzerakoan.

Gure taldeak jadanik duela urtebete eskatu zuen, osoko bilkuran, udal gobernuak jar zezala mekanismoren bat herritarrek parte hartzeko, haien ekarpenak 2017ko aurrekontuetan sartu ahal izateko. Ikusita laster

onartu beharko ditugula hurrengo aurrekontuak eta ez dela askorik aurreratu kontu honetan, hil honetako Ogasun batzordean galdetu genuen zergatik ez den ezer aurreratu herritarrek aurrekontuetan parte hartzeko prozesuetan.

Ogasuneko zinegotzi ordezkari Jaime Dominguez-Macayak adierazi zuen Irabazi Donostia udal taldearen iritzia subjektibo bat dela partaidetza prozesurik ez dagoelakoa eta gobernuak nabarmen aurreratu duela gai horretan. Zinegotziak hogeita hamar bat jarduera besterik ez zuen aipatu, bestelako deskribapenik egin gabe, haren ustez “herritarrek parte hartzeko dinamikaren erakusgarri ezin hobea” denaren oinarri gisa.

Gobernuak arlo horretan zehazki zer jarduera egin dituen jakiteko, garrantzitsua da taldeek egin diren jardueren xehetasunak ezagutzea, talde politikoek eta herritarrek modu gardenean izan dezaten udal gobernuak jasotako informazioaren berri.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

#### KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala txosten bat xeheki azalduko duena udal gobernuak legealdian zehar zer dinamika sustatu dituen herritarrek parte hartzeko eta horrek zer isla izan duen aurrekontuan.
2. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari has dezala partaidetza bidezko prozesu garden bat, herritarrek eta gizarte erakundeek partaidetza aldetik zer pauso eman diren jakin dezaten datozen udal aurrekontuei begira.
3. Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala partaidetza bidezko aurrekontuen araudi bat, egiten diren prozesuak gardenak izan daitezen.

Sinatua: Amaia Martin Garin,  
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.